

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatiotako bat sobera dago**.

UNIBERTSOAREN MUSIKAREN BILA: UHIN GRABITAZIONALAK

Duela 1.000 milioi urte inguru, Proterozoiko garai geologikoa amaitzen ari zen Lurrean. Bizitza konplexurik ez zen artean eratu, baina organismo sinpleak existitzen ziren, eta gure atmosfera oxigenoz betetzen ari zen; planeta, organismo konplexuagoetarako aproposa bihurtzen.

Bitartean, unibertsoaren beste muturrean, 30 km-ko erradioko bi zulo beltz ikaragarri, bata bestearen inguruan biraka, unibertsoan izan den gertakaririk bortitzenetako bati bide emango zioten. **1** Mugitzen ziren heinean, deformazio itzelak sortzen zituzten espazio-denbora jarraituan. Prozesu horren lekuko izan ahalko bagina, neurturiko denbora-tarteak eta distantzia espazialak periodikoki murrizten eta hazten nabarituriko genituzke, eremu grabitazionala zulo beltzen aldaketen arabera moldatzen den neurrian. Horiek dira, hain zuzen, segundo gutxi batzuek biraka egon ondoren, erraldoi horiek bidali zituzten uhin grabitazionalak. **2**

Bien bitartean, gure atmosfera egonkortu eta lurrean organismo bizidun konplexuagoak sortzen hasi ziren. Horien artean, duela milioi bat urte baino gutxiago, gizakiak; zeinak pentsamendu abstraktuz dohaindurik, natura ulertzeko asmoz teoriak eraikitzen hasi baitziren. Grabitazioari dagokionez, azken mendean asko ikasi dugu. Izatez, uhin grabitazionalen existentzia ez zen onartu 1950eko hamarkada arte. **3** Alabaina, historiak ez zuen luze joko zientzialari horiei arrazoia kentzeko.

Izan ere, 2015eko irailaren 14an, LIGOren (ingelesetik, Laser Interferometria bidezko Uhin Grabitazionalen Behatokia) bi detektagailuk seinale bat neurtu zuten: **4** Luzera-aldaketa hori nimiñoa zen (protoi baten tamaina baino txikiagoa), baina neurgarria LIGOrentzat, garaturiko teknologiarik esker. Seinalea aztertu ondoren, ondorioztatu zen detektatutakoa bi zulo beltz haien arteko talkan osatutako uhin grabitazionala zela.

Bi zulo beltz haiek sorturiko seinalea, bidaia oso luzea egin ondoren, azkenean, Lurrera iritsia zen, eta, izatez, izan gara, bai, haien talkaren lekuko.

1915. urtean, interakzio grabitatorioa deskribatzeko teoria berria argitaratu zuen Albert Einsteinek: erlatibitate orokorra. Ordura arte ezagutzen ziren efektuak ezin hobeto deskribatzen zituen. **5** Besteak beste, uhin grabitazionalak: espazio-denbora jarraituaren bibrazioak.

6 Lau dimentsioetako hiru ohiko dimentsio espazialak dira (sakonera, zabalera eta altuera) eta laugarrena, berriz, ezohikoa: denbora. **7** Erdigunean pisu bat jartzen diogunean, sare elastiko bati gertatzen zaion moduan, pilota bat askatzen badugu sarearen gainean, erdian dagoen gorputzerantz eroriko da, higidura kurbatu bati jarraituz. Horixe bera da planetei gertatzen zaiena. Eguzkiak deformaturiko espazio-denboran higitzen direnean. Zuzen mugitu beharrean, orbita kurbatuak egiten dituzte. **8**

Uhin grabitazionalari dagokionez, Einsteinek berak auresan zituen bere teoria argitaratu ondorengo urteetan, eta Oliver Heavisidek eta Henri Poincarék lehenago postulaturiko ideiarik formulazio matematikoa eman zioten. Karga elektriko azeleratuek uhin elektromagnetikoak (argia) igortzen zituzten moduan, masa azeleratuek ere uhin grabitazionalak igorri beharko lituzkete. Gorputzak mugitzen direnean, espazio-denbora jarraituan sortzen duten deformazioa aldatzen doa, eta aldaketa hori kontinuumean zehar transmititzen da, ontzi batek itsasoan higitzean sortzen dituen olatuen modura.

Hurrengo lau hamarkadetan, eztabaida zientifiko sakona izan zen, uhin horien existentziari buruz. **9** Laburtuz, galdera honako hau zen: teorian agertzen ziren uhin horiek fisikoak al ziren? Hots, energia garraiatzen al dute? Einstein bera hainbatetan aldatu zen iritziz.

Azkenik, 1950eko hamarkadan, uhin grabitazionalen existentziaren froga teoriko ukaezinak lortu zituzten hainbat fisikarrik.

BRIZUELA, D. *Elhuyar*, 2019ko martxoaren 1a. Egokitua.

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Baina orduko zientzialari gehienek pentsatzen zuten ezinezkoa izango zela haiek detektatzea, euren efektuak hain dira txikiak.
- B. Continuum hori deformatu egiten da, bertan energia edo masa jartzen dugunean.
- C. Detektagailuen 4 km-ko besoak bibratzen ari ziren, luzatzen eta laburtzen.
- D. Baina, horrez gain, ezusteko hainbat ondorio ere bazeuzkan teoriak ezkutaturik.
- E. Hain zen konplexua erlatibitate orokorraren formalismo matematikoa, ezen oso zaila baitzen hartatik interpretazio fisiko argiak ondorioztatzea.
- F. Orduantxe hasi zuen perturbazio horrek unibertsoan zeharreko bidaia.
- G. Euren arteko distantzia 350 km ingurukoa zen, eta abiadura erlatiboak, 100.000 km/s. Instant bat (0,2 segundo) baino ez zen falta biek talka egin eta zulo beltz bakarra osatzeko.
- H. Teklatua eta sagua erabiltzen dira gailu batzuetan, urrutiko agintea edo ukipen pantailak beste batzuetan.
- I. Beraz, interakzio grabitatorioa espazio-denbora jarraituaren deformazio gisa azaltzen du erlatibitate orokorrak.
- J. Interakzio grabitatorioa deskribatzeko, erlatibitate orokorrak suposatzen du lau dimentsioko continuum batean bizi garela.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8	9
Testu zatiak									

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

BLOCKCHAIN PROTOKOLOA DA BITCOINAREN OINARRI, KONFIANTZAREN TEKNOLOGIA BERRIA

Espekulazioa eta susmoa dira etorkizuneko jendarte marrazteko ohiko pintzelak. Koadro hori margotzeko zientzia fikzio bilakatu beharra dagoela diote batzuek, edo, kontakizuna bada, ezinbestean, ipuin bat behar duela izan. Tira, iritziak, eta ezeztatzen badira, heresiak. Edonola ere, joera teknologikoei begiratuta, eta trazu handitan arituz, utopia ala distopia dela pentsatuta ere, ez dago zalantzarik datorrena guztiz disruptiboa izango dela, muturreko aldaketen eskutik etorriko dela eta, jada, hemen dela.

Denbora kontua da jende guztia, noiznahi eta nonahi, konektatua egotea. Ez da teknologietan fede itsua izan behar aitortzeko Internet gure luzapen sozial, fisiko eta mentala izango dela. Poltsikoetan superordenagailuak eramango ditugu, ia nonahiko konputazio ahalmena, datuak prozesatzeko memoria ia mugagabea. Bizigabeko objektuak era digitalean lotu eta mundu fisikoa atonduko dugu. Istantean sortuko dira material fisiko berriak modu digitalean transmititutako parametroetatik. Eta kriptografiak nortasun berri bat emango digu, identitate digitala, baita transakzioak egiteko bide fidagarri eta seguruak ere, inork miatu edo ziurtatu beharrik gabekoak. Handia, oso handia den zerbaiten hasieran omen gaude.

Egun komunikabide eta ekonomista askoren gogoan da bitcoin kriptomoneta. Blockchain teknologia erabiliz eraiki den lehena izanik ere, gaur egun ez da bakarra. Blockchain algoritmo eta arkitektura multzo bat da, teknika kriptografikoan eta deszentralizazioan sostengatzen dena.

Teorian ideia demokratikoa da, erabiltzailetik erabiltzailerara dabil, eta banku-sistema nagusi, gobernu baten berme edo aldaketa-unitate gisa funtzionatzen du, urre piloa izan beharrik gabe. Inork kontrolatu ezin dezakeen kontabilitate publiko baten bitartez funtzionatzen du eta inork ezin dezake berridatzi, software-aren osotasuna arriskuan jarri gabe.

Sistemaz kanpoko jendeak bultzatu zuen teknologia hau 80ko hamarkadan, ziberpunk deituriko talde batek, hain zuzen. Kriptomonetaren funtzionamendua

garatzen ari zirela, aski blokeatuak zeuden une jakin batean, Satoshi Nakamoto goitzeneko pertsona (edo kolektibo) batek irtenbidea topatu zion arazoari: soluzio hori blockchain edo bloke-katea izan zen, kriptomoneta multzoaren oinarri den protokolo teknologikoa.

Ziberpunken ideala zena, egungo albisteetan, bederen, bazterretik erdigunera pasa da, eta, nolabait, finantza-sistemaren zoruak dardararazi ditu. Are gehiago, Txinako Gobernuak iragarri du baimena emango diela yuanarekin batera funtzionatuko duten kriptomonetei. Gauza bera Errusiakoak, Japoniakoak, Venezuelakoak... Zer dela-eta halako garapena?

Arazoia, antza, ez da bakarra. Gaur bitcoinean inbertitzen ari diren pertsona batzuek ez dute lege-oinarririk, eta, gainera, oraindik ezin da jakin nola ordain ditzaketen zergak kriptomonetetan egindako transakzioek. Interesak batzen dira hor: moneta hauek erabiltzen dituzten pertsona eta inbertsoreen interesa nolabaiteko legalitate bat edo helduleku bat izateko, eta estatuen interesa transakzio horiek fiskalizatzeko. Izan ere, kriptomonetekin egiten diren transakzioak jada ez dira banku zentralek jaulkitako monetekin egiten, eta, horrela, ekonomian egiten diren transakzioen gainean zergak biltzeko ahalmena galtzen dute estatuek. Gauzak horrela, Alemania izan da lehen estatua bitcoinari diru pribatuaren estatusa aitortzen, modu horretan egindako transakzioen zergak biltzea xede. Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak ere bitcoina monitorizatzen ari da, bere zerga-politiketan doitu ahal izateko.

Bestalde, zalantzarik ez dago nazioarteko merkataritzan ere aldaketak ekar ditzakeela, egun prozesu dokumental asko eskatzen dituzten kredituetan... diru programagarrian oinarritutako kontratu adimentsu batek prozesu horiek guztiak automatizatuko bailituzke. Berdin gertatuko litzateke salerosketa baten kasuan, higiezinena, lurrena edo dena delakoena izanik ere, gerta liteke jabetza-erregistrora joan beharrik ere ez izatea, baldin eta transakzio hori egiten den unean nortasun digitala jada blockchainaren barruan badago.

Euskadiko Kutzako Ordainbideetako buruak, Mikel Arriaranek, ez du dudarik: «Teknologia disruptibo batez ari gara, konfiantzaren teknologia berri batez. 90eko hamarkadako Internetekin bezala, orduan ere zehatz-mehatz ez zen gauza jakina zein ibilbide izango zuen. Internetek elkar ezagutzen ez zuten bi pertsonaren arteko konexioa ahalbidetu zuen, eta blockchaina bi pertsonaren artean transakzio bat erraztera dator, modu seguruan,

gauzatuko delako berme guztiekin. Transakzio horretan bidaiatzen duen datua ekonomikoa eta monetarioa izan daiteke, baina bestelakoa ere bai, informazio-mailakoa edo dena delakoa. Eta horri *smart contracts* edo kontratu adimentsuak gehitzen badizkiogu, baldintza zehatz batzuk betetzean ordainketa-agindua kodifikatzen dutenak, ba aukeren eremu ia mugagabeen sartzen gara...».

ZUBIMENDI, M. <naiz.eus >, 2018ko urtarrilaren 6a. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

10. Zer eramango dugu aldean gizakiok etorkizunean Zubimendiren ustez?

- a) lpuinetan sinetsiz gero, gure luzakin fisiko, sozial eta mentala izango den ordenagailua.
- b) Mundura konektatuta izango gaituzten gailuak.
- c) Superkonpungailu mordo bat, ahalmen handikoak denak.

11. Zer da kriptomoneta?

- a) Blockchain teknologian oinarritutako lehen moneta.
- b) Blockchain teknologian oinarritutako moneta, bitcoin deritzona.
- c) Blockchain teknologian oinarritutako moneta oro.

12. Zergatik da Blockchain ideia demokratikoa?

- a) Ezin delako transkribatu haren segurtasuna arriskuan jarri gabe.
- b) Banku-sistemen eta gobernuen onarpena lortu duelako.
- c) Kontularitza publiko baten bitartez dabilgelako, inork maneiatu ezin duena.

13. Nolako oihartzuna du gaiak egungo komunikabideetan?

- a) Finantza-sistemaren zutoinak astindu dituenez, erdigunean jarri dute.
- b) Azkenean, bazterretik erdigunera pasa da gaia, ziberpunken ideala gorpuztu da.
- c) Badu oihartzunik, eta hainbat gobernuk onartu egingo dute kriptomoneten erabilera.

14. Zein izan da kriptomonetak izandako zabalkundearen arrazoia?

- a) Estatuak agertu duten jarrera.
- b) Baliabide digitalen sendotasuna.
- c) Eskaintzen duen bermea.

15. Nortzuk ari dira kriptomonetaren garapena bultzatzen?

- a) Erabiltzaileak.
- b) Erabiltzaile eta estatuak.
- c) Erakunde pribatuak.

16. Nola eragin lezake etorkizunean teknologia honek salerosketetan?

- a) Gaur egun beharrezko diren agiri eta prozedura asko desagertu egingo lirateke.
- b) 90eko hamarkadan Internetek izan zuen oihartzun bera izango luke bloke-kateak salerosketetan.
- c) Etorkizunean higiezinen edo lurren salerosketa egiteko aukera emango luke diru programagarriak.

17. Nolakoak izango dira etorkizuneko transakzioak Arriaranen esanetan?

- a) Transakzioetan askotariko datuek bidaiatuko dute, ziurtasun-berme osoz guztiak.
- b) Transakzioetan bidaiatuko duen datu fidagarrienetakoa ekonomikoa izango da.
- c) Transakzioetan kontratuek baldintza bereziak bete beharko dituzte: kontratu adimentsuak.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EMOZIOAK ANTROPOZENOAN

Azken hamar urteotan trantsizio ekosozialaren urgentziaz hizlari jardun dugunok badakigu zer den, datuak eman ahala, entzuleen begiak larritzen ikustea. Beldurra ez da emankorra dosi altuetan, eta ateraldi erreakzionarioak ere piz ditzake. Beraz, hitzak modulatu behar, saihestuz alarmismo antzua, aipatuz aterabideak, eta horretan ez da beti asmatzen. Aldi berean, garbi utziz seguruenera ez dela paradisu izango lurrean giza kondizioa nekez ezkon baitaiteke perfekziozko proiektu handiekin. Autolimitazioa da kontua. Garapen alternatiboak eta garapenari alternatibak.

Hamar urteotan datuak nabarmen larriagotu dira, dela klima, energia, finantzak, ekosistemak, ezberdintasunak, prekarietatea, Europaren deskonposizioa, antidepresiboak, armak, errefuxiatuak edo eskuin-muturra. Eta shock handienak etortzeke daude, hautatu baita krisitzarra areagotuko duen aurreranzko ihesa. Zibilizazio industrialak kolapsatzeko presa balu bezala.

Halere, trantsizioaren zaleok sarri jasotzen dugu epai kontrafaktiko bera: irakurketa ezkorra duzu, katastrofista, apokaliptikoa. Hots, hizlariari hiperbolea egotea da erantzun arketipikoetako bat. Mezularia hiltzea, nolabait. Nago ukazio-molde bat dela. Nahasmenduaren erdian, *cow boy* tiro egin dio pianistari, ez zaio doinua gustatu. Freudek defentsa-mekanismoa ikusi zuen mezularia hiltzeko joera ezagunean, «aurre egiteko jasanezina denari» zioen.

Ukatzaileak saihestu ohi ditu datuak, ezbaia ez da kokatzen dialektika arrazionalaren eremuan. Erreklamoa beste bat da, haserretik maiz: ez nazazu blaitu kezka, antsietatez, beldurrez, tristuraz, sentipen kaotikoz. Emadazu *positive thinking*, proposatu ezazu *happy* amaiera. Ondoeza kanporatu beharra dago.

Ulergarria da ukazioa. Defentsa-mekanismotik harago, azal daiteke eboluzioaren ikuspegitik ere: espezie gisa eboluzionatu genuen «hemen eta orain» erantzuteko (epe motza eta gertuko espazioa), baina teknologiarik esker giza ekintza inoizko eraginkorrena da «han bihar». Alegia, handi geratzen zaigu emergentzia ekosozial globala,

labur geratu baitzaigu aparatu moral-kognitiboa. Pertzepzioak eraiki ohi ditugu eguneroko esperientzia berehalakotik, eta dendetako apalak gainezka daude, arazorik ez autoaren depositua betetzeko, bonbilla askoz efizienteagoak ekoizten ditugu orain. Ezgaitasun kognitibo funtsezkoan harrapatuta bageunde legez.

Gainera, eboluzioaren hasieran ezaugarri bat hautatu omen zen biziraupena ziurtatzeko, gaur kaltegarri zaiguna: arazo sozialen gaineko ezagutza inhibitzeko aurre-disposizioa, baita geure buruak engainatzekoa ere, daukagun botere handiari buruzko esperantza faltsuekin. Hau da, egia baino nahiago dugu esperantza. Hainbaten kasuan, ordea, nago badela motibo sinple bezain aitorrezinik. Geure barneko alderdi batek nahiago du kolapsoa esportatzen jarraitu, Irakera, Libiara, Siriara. Nahiago du desjabetzean oinarrituriko garapenarekin segitu. Hobe genuke logika ekofaxistak ikustea norbere barruko inplizitu gisa, soilik hor kanpoan objektibatu beharrean eskuin-mutur eran. Ez eman berri deserosorik barruko horri, bertan goxo egon nahi baitu biekin: ez dagokion energia- eta material-kontsumoarekin, eta ez dagokion kontzientzia onarekin. Espero du enpresak handituko dituela salmentak, uxatuz EREa. Konfiantza sortarazi dio informatiboak, entzun baitu Loiuko aireportuak areagotu dituela hegaldiak, tutik ez karbono-isuriez. Eta, e, burtsak ez du, bada, gora egin: diruak dirua eman dio deus egin gabe, ez du ezer galdetuko.

Hortxe dugu euskal jendartearen arteria (sozialdemokrata) zentrala. Sistemak behar gaitu baikor eta kontsumoaren zale, sinergikoak dira biak: baikorrak kontsumitzen du eta kontsumoak baikor bihurtzen gaitu. *Framing* jakin bat da, mimoz fabrikatua, jakina, *Black Friday* ez da gertakari meteorologikoa.

Gauzak horrela, gogaikarria da ekologismo ez-estetikoa. Talde-orgia demasekora heldu den tipoa da, partehartzaileak beroaldiaren gorenean daude eta eskatu die jarduna eteteko, preserbatibo ezaz eskandalizaturik. Nork arraio gonbidatu du triste hori?

Bitxia da, gizarteek babesik gabe ari diren falokrata produktibistei esleitu diete oreka, heldutasuna, gidaritza. Aldiz, zaintza ekologikoari egotzi zaio irrealismoa, edo *puer aeternus* konplexua, umearen espiritu erradikal eta xaloei dario bere proposamenari. Bost axola zer dioten fisika oinarrikoenak edo azken txosten zientifikoak. Zaila da aterabidea, asko dira prest ez daudenak. Dolu mingarria eskatzen baitigu: agur esatea hazkunde material hazkorraren promesari. Kolapsoa saihesteko, kolapsora eraman behar zentzu-estruturazaharrak. Ezaguna da Kübler-Rossek galeren aurrean formulatu zuen erreakzio-zikloa: ukazioa, angustia, egokitzapena, depresioa eta, azkenik,

onarpena. Premiazkoa da ahalik eta gehienek ukazioa gainditu eta ziklo osoa burutzea. Azkar samar.

Arduragabekeriaren eta fatalismoaren artean, bada besterik: amiltzea saihesteko, horixe dela gertagarriena sinesten duen jarrera arduratsua. Jean-Pierre Dupuy-k *catastrophisme éclairé* deitu zion behar dugun atmosfera emozionalari: irudimena eraman behar genuke hondamendiaren osteko garaira eta garbi bistaratu zer datorren gaurko bidetik. Jakinik ez dela nahitaezko patua. Etsigarria? Eutsigarria izateko bidea.

AZKARRAGA, J. *Berria*, 2017ko urtarrilaren 22a. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

18. Zer dakite trantsizio ekosozialaren urgentziaz mintzalari aritu direnek?

- a) Ikarak dosi altuetan portaera atzerakoia eragiten dituela.
- b) Alarmismoa alboratuz, garbi utzi behar dela, beharbada, ez dela zerurik izango lurrean.
- c) Badakite zer den entzuleen artean ikara eta jarrera atzerakoia sortzea.

19. Idazlearen ustez, zer egozten zaie sarri askotan trantsizioaren zaleei?

- a) Irakurketa apokaliptikoa egitea.
- b) Ukamen-modu bat leporatzen zaie.
- c) Gezurretan oinarritzea.

20. Nola azal daiteke ukamena, idazlearen ustez?

- a) Erosotasuna: jendeak ez du kezkarik nahi, eta egia ulertzea neketsua zaio.
- b) Izaera: ematen du eboluzioak ezgaitu egin gaituela orain eta hemen ez dauzkagun arazoei aurre egiteko.
- c) Egoismoa: berdina zaio gertatzen dena eta gertatuko dena berari eragiten ez dion bitartean.

21. Zein da gizakiongan gailentzen den jarrera, idazlearen ustez?

- a) Kolapsoak kezkatu egiten gaitu, edonon eta edonola gertatuta ere.
- b) Ohikoa da logika ekofaxistak norberaren inplizitu gisa ikustea eta onartzea.
- c) Jabetza kentzean sostengatzen den garapenarekin jarraitzea hobesten dugu.

22. Zer nahi dugu gizakiok?

- a) Herrialde guztiek beren bizimoduari eutsi ahal izateko bermea.
- b) Sistema ekonomikoen beharretara ahalik eta hoberen egokitu.
- c) Kontsumitzen jarraitu, inolako ardura eta kontzientzia eragozpenik gabe.

23. Nolakoa da, jendartearen begietara, zaintza ekologikoa?

- a) Ume baten izaera muturrekoa eta tolesgabearen antza hartzen dio ekologismoari.
- b) Jendarteak irrealismoa eta zorroztasun falta leporatzen dizkio ekologismoari.
- c) Jendartearen ustez, ekologismoa ez da kezkatzen fisikaz edo txosten zientifikoek diotenaz.

24. Zein da aferaren irtenbidea?

- a) Finean, aditu guztiak datoz bat proposatutako irtenbidean: trantsizio ekosoziala.
- b) Kübler-Rossen ustez, galera da irabazteko bide bakarra.
- c) Etsigarria bada ere, norberaren erantzukizuna onartzea.

25. Zein da arduragabekeriaren eta fatalismoaren artean dagoen irtenbidea?

- a) Jarrera arduratsua da irtenbidea, amiltzea bera saihestuko duena.
- b) Bestearen ikuspegia ulertzeko jarrera.
- c) Unean uneko interesak baztertzea.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna
 - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa
 - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
 EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.
 Oharra: **asmatu izenpea** anonimotasuna gordetzeko

GAIA: Azkenaldian, zerbitzuko langileak ez dabiltzala gustura igarri duzu, alegia, motibazioa erabat galdu dutela. Horrek eguneroko lanean eragin zuzena izan du. Egoerari buruz hausnartu ostean, argi duzu lan-taldeak behar bezala funtzionatzeko eta lanari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, beharrezkoa dela lanean hainbat alderdi sustatzea.

Zerbitziburua zaren aldetik, idatzi gutuna zure ardurapean dauden langileei egoeraren berri emateko, langileak lanean motibatuta egoteak zer garrantzi duen azpimarratzeko, eta aurrera begira, motibazioa handitzeko asmoz, zenbait neurri proposatzeko eta arrazoitzeko.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulu**a idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK**1.****KONTSOLIDAZIOAREN OINARRIA**

Bitarteko langileen kopurua oso handia da EAEko administrazioan eta horrek arazo ugari sortzen ditu. Baina konponbidea ez da erraza; edo bai, nork eta nondik ikusi.

Inoiz lehenago, funtzio publikoan sartzeko merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak hautsiz, xedapen orokorrak eta lehiaketa mugatuak baliatu izan dira bitartekoak karrerako funtzionarioen artean integratzeko tropelean.

Baina, gaur egun, Konstituzioan jasotako printzipio horiek eta aplikatu beharreko araudia gogoan, legez kanpoko da bitarteko funtzionarioak funtzionario bihurtzea tartean hautaketa-prozeduraren bat ez bada. Eztabaida, izatekotan, beste bat da: ea lehiaketaldian esperientziak baliorik izan behar duen eta zenbaterainokoa, zerbitzuan emandako lan mota guztiak aitzatetsi behar diren... Izan ere, izugarri handia da EAEko administrazioan biziaren erdia eman duen langile kopurua: % 70ek 53 urte dituzte.

<www.cgtytozar.com>. Egokitua.

2.**SUIZIDIOA ARMAIRUTIK ATERA BEHAR DA**

“Osasun publikoagatik izan balitz hilda nengoke”, halaxe dio bere buruaz beste egiteko bi saiakera egin dituen emakume batek.

“Suizidioa ez da askok uste duten moduan hautu pertsonala, hautu erromantiko bat; sufritzen ari diren pertsonen ari gara, buruko nahasmenduren bat dutenak asko eta asko” dio aditu batek. “Suizidioan pentsatzen duenak ez du hil nahi, baizik eta bizitzaren egoera jasanezinetatik eta sufrimendu emozional eta fisikotik askatu”.

Adituen ustez, behar-beharrezkoa da urteetan tabua izan den hitz horretan tematzea eta armairutik ateratzea: *suizidioa*. Eta horietako askoren ustez, horrez gain, behar-beharrezkoa da prebentzio plan nazional bat ere, “Estatu kontua delako: suizidioa da, alde handiz, heriotza ez naturalen lehen arrazoa Espainian, eta goranzko joera du”.

De La Chica, Manuel. *El Español*, 2019-0910. Egokitua.

3.

ANAIA HANDIA

Zainketarako zirkuitu itxiko kameretan bildutako gehiena inork ikusi ere egin gabe ezabatzen da. Baina enpresa ingeles batek material horri etekina ateratzeko modua aurkitu du: *Internet Eyes*. Atari horrek, mundu osoan eta zuzenean emititzeko aukera eskaintzen die kamera horien jabeei (polizia, enpresak, partikularrak...), ia musutruk. Begiratzea doan da. Eta ikusleak krimen baten lekuko izateko zortea badu, ohartarazi poliziarri, eta, saritzat, 1.000 libera.

Bistan da intimitaterako eskubidearen inbasioa gero eta nabarmenago eta zuzenagoa dela; izan ere, jada posible da kalean dabilen edonor identifikatzea. Shanghain, esaterako, horretaz baliatzen dira hondakinen programa adimentsu berria betearazteko ere; ondo birziklatzen duena saritu, eta gaizki egiten duena jazarri.

CRESPO, Maria. *El Mundo*, 2010/08/04. Egokitua.

5.

EUSKAL HIRI NAGUSIEN ERALDAKETA

Ekonomia zentralizatzen ari den heinean populazioak ere bide bera darama. Hori dela eta, 2050ean munduko populazioaren % 66 hiri handietan biziko omen da; Europako populazioaren % 73k jadanik egiten duen moduan.

Bestalde, ohiko merkataritza desagertzen ari da, eta negozio horiekin lotutako burgesia txikia ere bai. Ekonomiaren bilakaera honetan, gure hirietako denda gehienak frankiziak dira. Eta berdintsu ari da gertatzen betidanik ezagutu ditugun ostatuekin, batik bat turismoaren eragina nabari den hirietan.

Azpimarratu behar da, sektore horiek eskulan merkea behar dutela, kualifikatu gabea, eta hori guztia hirietako periferian daukate, ugari gainera.

BAKAIKOA, Baleren. *Argia*, 2019/06/09. Egokitua.

4.

ABSENTISMOA HAN ETA HEMEN

Adeccoren txosten batek dioenez, espainiar estatuko batez bestekotik gora dago absentismoaren indizea Hego Euskal Herrian: % 7,9koa da EAEn eta % 6,9koa, Nafarroan.

Mari Jose Aranguren Lehiakortasunerako Euskal Institutuko zuzendariaren esanetan, bereizi egin behar da justifikatutako absentismoa (gaixotasunak, aitatasun/amatasun-baimenak, kontziliazio-neurriak...) eta justifikatu gabekoa.

Beatriz Plaza EHUko Ekonomia Aplikatuko irakaslearen ustez ere Adeccoren txostenaren oinarria okerra da, "ez da posible EAEn, estatu-mailan produktibitate handiena duen erkidegoan, absentismoari buruzko datua altuena izatea". Plazak, datuok lortzeko eta estatistikak egiteko moduari (irizpideak, zehaztasun-gradua, etab.) egotzi dio errua: aldea dago erkidego batetik bestera.

EITB, *Faktoria*. 2019/06/25. Egokitua.

6.

PENTSIOPEN SISTEMA EGOKITU BEHARREAN

Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentek (AIReF) Pentsioen Errebalorizazio Indizearen (IRP) aurka egin du; izan ere, indize horren arabera, Gizarte Segurantzaren zenbaki gorrietan dagoen bitartean, pentsioak ia erabat izoztuko dira, eta egoera horrek denboran iraungo balu, % 30 arteko murrizketa eragingo luke prestazioetan.

AIReFen ustez, gastuan identifikatutako arazoaren erdia baino gehiago konponduko litzateke erretiroadina benetan 67 urtera atzeratuta.

Horrez gain, pentsiodun berrien kotizazio-oinarria lan-bizitza osoarekin kalkulatzearan alde egin zuen, eta ez azken 25 urteekin soilik.

Azkenik, sistemaren gastuak berregituratzeko beharra defendatu zuen; alegia, kontributiboa ez den guztia kotizazioekin finantzatu ordez, aurrekontuen bidez finantzatzea, hala nola langile-gastuekin, enplegu-politika aktiboekin eta kontratazioarako laguntzekin edo alargun- eta zurztasun-prestazioekin.

PALACIOS, L. *El correo*, 2019-10-01. Egokitua.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «UNIBERTSOAREN MUSIKAREN BILA: UHIN GRABITAZIONALAK»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.	9.
Testu zatiak	G	F	A	C	D	J	B	I	E

Soberakoa	H
------------------	----------

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «BLOCKCHAIN PROTOKOLOA DA BITCOINAREN OINARRI, KONFIANTZAREN TEKNOLOGIA»

10.	B	11.	C	12.	C	13.	C	14.	A
15.	B	16.	A	17.	A				

- **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «EMOZIOAK ANTROPOZENOAN»

18.	B	19.	A	20.	B	21.	C	22.	C
23.	A	24.	C	25.	A				